

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Bezeroei zerbitzu integral bat eskainiko diogu ezkontza bat, non beraiek ez dute inolako preokupaziorik izango, guk antolatuko diegulako ezkontza osoa. Baina gure enpresa, besteengandik desberdinduko da, oso egokituta egongo delako ezkontza diren pertsonen gustuetara eta historioetara.

Hau egiteko, hasieran, gure zerbitzuen datuen eske datozen bezeroei galdetegi bat egingo diegu, bere gustuak jakiteko. Zure harremanaren une aipagarriak zeintzuk izan ziren, nola ezagutu zineten eta bikotekide nola egin zineten ere jakingo dugu. Horrela, bezeroentzat perfektua den zerbitzua eskaintzea lortuko dugu, datu hauetan oinarritutako gauza bereziak eskainiko ditugulako ospakizunean.

Galdetegiak hemen aurkitu ditzakezue, erderaz zein euskeraz:

- Euskeraz: <https://forms.gle/FT7h1sp9YgkTVy1u7>
- Erderaz: <https://forms.gle/VEsmnY4wKkYMcTW9>

Eskainiko dugun zerbitzua bakarra eta berezia izango da gure bezeroentzat. Inkestaren bidez jakingo ditugun istorioan eta gustuetan zentratuta, inoiz ahaztuko ez duten ezkontza bat lortu nahi dugu. Hasieratik amaieraraino zerbitzu batez arduratuko gara, xehehasuna txikiena ere kontuan hartuta; gure bezeroek ezkontzaren plangintzan sor daitezkeen arazoez arduratu beharrik ez izatea nahi dugu, eta, horretarako, ahal dugun guztia egingo dugu arazo horiek konpontzeko.

Gure zerbitzuaren barruan sartuko dira hainbat hornitzaile desberdin:

13 jatetxe aukeratu ditugu, gure webgunean azalduta, hala nola; Argmendi Jatetxea, Boroa Jatetxea, Martin Jatetxea, ...

Lore sortak egiteko hornitzaile batzuk izango ditugu ere. 2 hornitzaile desberdin leku bakoitzeko (Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban banatuta egongo direnak).

Gonbidatuen kudeaketarako gure gonbidapen pertsonalizatuak sortu ditugu, aurrerago azalduko diugunak.

2 argazkilari profesionalak ere ditugu, ezkontzaren bidaia antolatzen duen hornitzailea, jantziak egiten dituen hornitzaileak, ezkontzeko leku desberdinak...

